azpiegituren plan baten zatia da. Proiektu hori gauzatzea 3.000 milioi euro baino gehiago kostako da, eta Administrazio zentralaren kontura finantzatu eta eraikiko da. Azken urteotan egindako azpiegituren inbertsio planik handinahietako bat da Euskal Y-a, eta, horri esker, hiru euskal hiriburuak lotuta egongo dira oso epe motzean. Abiadura handiko linea EAEko historia osoan izan den inbertsiorik handiena da, eta komunikazio sare moderno bat sortuko da; eztabaidaezina da bizkarrezur moduko bat izango dela barrura eta gainerako lurralde nazionalera begira. Horren bidez, EAEren behar ekonomiko eta sozial bati erantzungo zaio, baina, era berean, dimentsio politiko bat ere eskatzen du; hain zuzen, Estatuaren presentzia eraginkorra izango baita gure erkidegoaren garapenean. Presentzia eraginkor horrek egiten die min nazionalistei eta EBri, baina Estatuaren presentzia beharrezkoa da. Gisa horretako proiektuek argi uzten dute Administrazio zentralak zenbateko interesa duen EAEn; hala erakusten du horretan xahutuko duen dirutzak: 3.000 milioi euro. Beraz, Euskal Y-a ezin izan daiteke inbertsio plan bat, Administrazio zentralak inoren lurraldean egindako sarraldi anekdotiko gisa hartu beharrekoa; aitzitik, Espainiaren batasunerako ekimen koherentetzat hartzen dugu, bai eta jarraibidetzat ere, erkidegoetako administrazioen eta administrazio zentralaren arteko leialtasunean oinarritutako inplikazio eta lankidetza politiko handinahi bat izan behar duen horretarako. Euskal Y-aren proiektuak Europaz gaindiko konexioak indartzeko modu gisa garraiobideak sustatzeko behar estrategiko horren zati izan behar du; proiektu horren bidez, gainerako Espainiarekin eta Europako Batasunarekin lotuta egongo gara, trenbidez. Espainian, 2010. urterako, abiadura handiko tren bidez lotuak egongo dira probintzietako hiriburu nagusiak; beraz, uste dugu euskal hiriburuak ezin gera daitezkeela proiektu honetatik kanpo. Hainbat alderdik ekimen honen aurka egiten

2007 diseñado por el Gobierno central. El coste de ejecución de dicho proyecto supera los 3.000 millones de euros, financiación y construcción que corre a cargo de la Administración central. La Y vasca es uno de los planes de inversión más ambiciosos de infraestructuras previstos en los últimos años que permitirá unir las tres capitales vascas en un espacio de tiempo muy corto. La línea de alta velocidad representa la inversión más importante en toda la historia de la CAV, creando una red de comunicaciones modernas, con un efecto indiscutible de vertebración interna y con el resto del territorio nacional. Se trata de atender una necesidad económica y social para el Pais Vasco, pero igualmente implica una dimensión política que se traduce en la presencia efectiva del Estado en el desarrollo de nuestra comunidad. Esa presencia efectiva es lo que molesta a los nacionalistas y a IU, la presencia del Estado es necesaria. Proyectos de este tipo ponen de manifiesto el gran interés que para la Administración central supone el Pais Vasco, como así lo demuestra el gran desembolso económico que ello supondrá: 3.000 millones de euros. La Y vasca no puede ser por tanto un plan inversor que deberá ser tratado como una incursión anecdótica de la Administración central en territorio ajeno, sino que la valoramos como una iniciativa coherente con la realidad unitaria de España y como una pauta para lo que debe ser una ambiciosa política de implicación y colaboración basada en la lealtad entre administraciones autonómica y central. El proyecto de la Y vasca forma parte de esa necesidad estratégica de potenciar los medios de transporte como forma de favorecer las conexiones transeuropeas; a través de esta iniciativa estaremos conectados por vía ferroviaria con el resto de España y la Unión Europea. En España para el año 2010 estarán conectadas por trenes de alta velocidad las principales capitales de provincia, por lo que entendemos que las capitales vascas no se pueden quedar fuera de este proyecto. La

dute bakar-bakarrik interes alderdikoiengatik, eta bere egin nahi dute Gobernu zentralari finantzatzea eta eraikitzea dagokion proiektu hori. Beste administrazioetako diruarekin ondare bihurtu nahi dute finantza plan bat, euskal gizartearen aurrean proiektuaren sustatzaile gisa azaltzeko, beste behin alderdiaren interesak herritarren beharren gainetik jarriz. Oposizioak proiektu honen inguruan duen jarrera justifikatzen du esanez ingurumenean izugarri eragingo duela. Uste dugu jarrera horrek batez ere planteamendu politiko bat gordetzen duela funtsean, ezker erradikalak asmatua; hain zuzen, haien asmoa da EAEren eta Espainiaren arteko edozein motatako konexio edo mendekotasun saihestea; horrek jarrera atzerakoia, garaiz kanpokoa eta isolazionista islatzen du, eta lur hau Espainian eta Europan uhartetxo bat bihurtzeko asmoa. Uste dugu beraiek nahi duten eredua ez dela gizarte bat, pertsonen eta salgaien joan-etorria erraztuko duten azpiegitura modernoak dituena, baizik eta bakartutako gizarte bat. Proiektu hau erabat bateragarria da garapen iraunkorrarekin, bateragarri egin nahi baititu ingurumenarekiko errespetua eta garraio-sarearen hobekuntza, bereziki, eta azpiegiturak, oro har; eta hor murgilduta daude gizarte modernoak, ekimen handi hau gauzatzeko egindako ingurumen inpaktuari buruzko azterketek erakusten duten bezala. Beraz, erradikalek proiektu honi egiten dioten oposizioak eta agintari nazionalistek gauzatze horretara lotzeko duten gogo biziak erakusten du bete-betean asmatu dela euskal gizarteari gainerako lurralde nazionalarekin komunikatzeko alternatiba bikain hori eskainita, eta EB arriskuan jartzen ari da hori berriki Europako Batasunean aurkeztutako errekurtsoarekin. Errekurtso horrek Gasteizko hirutariko gobernuaren ahulezia erakusten du, proiektu hau aurrera ateratzeko orduan ideiak ez baititu batere garbi. Gure iritziz, *Euskal Y*-a errealitate izateko arazo nagusia Eusko Jaurlaritzan bertan dago; Ibarretxe jaunaren

oposición que determinados grupos realizan contra esta iniciativa responde únicamente a intereses partidistas, tratando de apropiarse de un proyecto cuya financiación y esfuerzo corresponde al Gobierno central. Se pretende patrimonializar un plan financiero con dinero de otras administraciones, con la finalidad de presentarse ante la sociedad vasca como los promotores del proyecto, anteponiendo una vez más los intereses de partido a las necesidades de la ciudadanía. Se justifica la oposición a este proyecto en base al grave impacto ambiental que el mismo ocasionará. Consideramos que esta posición fundamentalmente esconde un planteamiento político de fondo ideado por la izquierda radical; pretenden realmente evitar cualquier forma de conexión y dependencia entre el Pais Vasco y el resto de España, reflejando una postura regresiva, extemporánea y aislacionista, con la pretensión de convertir esta tierra en un islote en España y Europa. Consideramos que el modelo que desean no es el de una sociedad con infraestructuras modernas que faciliten el flujo de personas y mercancías, sino el de una sociedad aislada. Este proyecto es perfectamente compatible con el desarrollo sostenible, que trata de compatibilizar el respeto al Medio Ambiente con la mejora de la red de transportes, en particular, y de infraestructuras en general, en el que se encuentran inmersos las sociedades modernas, como así lo demuestran los estudios de impacto ambiental realizados para la ejecución de esta importante iniciativa. Por lo tanto, la oposición de los radicales respecto a este proyecto y el afán de los nacionalistas gobernantes para ser vinculadas a su ejecución, demuestra que se ha acertado plenamente al ofrecer a la sociedad vasca una excelente alternativa de comunicación con el resto del territorio nacional, que IU está poniendo en peligro con el recurso presentado recientemente en la Unión Europea. Este recurso demuestra la debilidad del tripartito de Vitoria que no tiene las ideas nada claras a la hora de sacar este proyecto

kideak duen jarreraz bestera, Gobernu zentralak dagoeneko lizitatu ditu lehenengo zortzi tarteak. Ez dugu ulertzen Eusko Jaurlaritzako kideek Euskadirako azpiegitura garrantzitsuenari jartzen dizkioten etengabeko trabak; traba horiekin arriskua dago EAE Europako etorkizuneko garraio sareetatik baztertua geratzekoa. Ziur gaude proiektu estrategiko hau funtsezkoa dela gure erkidegorako eta ziurtatzen dugu gaur haren aurka daudenek urte batzuen buruan, modu zurian erabiliko dutela, haren alde onak nabarmenduz.

hacia adelante. A nuestro juicio, el principal problema para que la Y vasca sea una realidad está en el propio Gobierno Vasco; en contraposición a la actitud del socio del señor Ibarretxe, el Gobierno Central ya ha licitado los ocho primeros tramos. No entendemos las continuas trabas que desde los socios del Gobierno Vasco se ponen a la infraestructura más importante para Euskadi; con estas trabas se corre el riesgo de que la CAV quede marginada de las futuras redes europeas de transporte. Estamos convencidos de que este es un proyecto estratégico fundamental para nuestra comunidad y aseguramos que aquéllos que actualmente se oponen al mismo, dentro de unos años de forma hipócrita lo utilizarán resaltando sus virtudes".

PPko zinegotziak azaldu du berak mozio hori aurkeztu zuenetik egoera aldatu egin dela EAJren aldetik; beraz, argitu nahi du bere argudioa lehendik prestatua zuela. Jarraitu du esanez gaur egun EAJ *Euskal Y*-aren alde dagoela; beraz, berak irakurritakoa tokiz kanpo dago neurri batean, baina bere argudioak irakurri nahi izan ditu, berak mozioa aurkeztu zuenean egoera hori zelako. Bestalde, esan du Nafarroa abiadura handiko linea bidez EAErekin lotzeko aukera planteatu dela ordutik, eta badirudi Nafarroako Gobernua ere prest dagoela. Beraz, uste du beharrezkoa dela abiadura handiko trena EAEn jartzea.

La concejal del PP ha explicado que desde que ella presentó esta moción la situación ha cambiado con respecto al PNV; por lo tanto quiere aclarar que su argumentación estaba preparada de antes. Sigue diciendo que actualmente el PNV se muestra a favor de la Y vasca, por lo tanto lo que ella ha leido queda un poco fuera de lugar, pero sí que ha querido leer su argumentación porque cuando ella presentó la moción la situación era esa. También dice que desde entonces se ha planteado la posibilidad de unir Navarra con el Pais Vasco a través de una línea de alta velocidad, ante lo cual el Gobierno navarro también parecía que estaba muy dispuesto a ello. Por lo tanto, considera que el tren de alta velocidad es algo necesario que debe instalarse en el Pais Vasco.

Horren ostean, EBko zinegotzi Juan M. Tomasena Alzurik hartu du hitza, PPk aurkeztutako mozioari erantzuteko; izan ere, EBk tren abiadura handikoaren alde egiten du, eta ez da gauza bera. Segidan, bere argudioak irakurri ditu:

A continuación ha pedido la palabra el concejal de IU, Juan Mª Tomasena Alzuri para ofrecer una contestación a la moción presentada por el PP, ya que IU apuesta por el tren de velocidad alta, que no es lo mismo. A continuación ha procedido a leer su argumentación:

"Alkate jauna, zinegotzi jaun-andreak, abiadura handiko trenak ez dio mesede egiten

"Señor alcalde, señoras y señores concejales, el tren de alta velocidad no beneficia a Euskadi y

# 2004KO UZTAILAREN 28KO UDALBATZARRAREN AKTA
# ACTA DEL PLENO DEL 28 DE JULIO DE 2004.

EAEri, eta Urnietak behar duen azken gauza da. Instalazio bikain bat, geltoki egoki bat izanda, ez da zentzugabekeria bat besterik Urnietarako gaur egungo zerbitzua nabarmen hobetzeko eskatu beharrean, gaur egungo trenbidean inbertsio batzuk egin beharrean gure herritarrak azkar, segurtasunez eta maizago Gasteizekin eta Madrilekin edo Valentziarekin lotzeko, gera zaitez zu, M. Asuncion Guerra, mozio horrekin, eralgitzea, Urnieta osoarentzako eta gurea bezalako ehunka herrirentzako erabateko hipoteka proposatuz, eta batez ere, proposatu, EAJk bezala, inoiz diseinatu den trenik antisozial eta zaharkituena. Hemen elkartu dira berriz, beren dimentsio osoan, eskuin espainola eta euskal eskuina, eta eskuineko politika, garapen zalea eta eutsiezina egiten bukatu dute. Frantziak uko egin dio abiadura handiari, eta hala egin du, besteak beste, abiadura handiak ez duelako konpontzen garraioaren arazo larria, eta lotu beharrean, bakartu egiten duelako. Frantzia izan zen AHTren alde egin zuen lehenengo herrialdea, Paris-Lyon linearekin; linea horrek makrozefalia eragin zuen, hau da, Paris handitu egin zen, eta Lyon txikitu. Ez zuen balio izan bi hiriak lotzeko, baizik eta bata kolapsatzeko bestearen kaltean. Abiadura handiaren alde egitea porrota izan da airez ere: *Concorde* sonatu hura, Frantziakoa hori ere, fabrikatzeari utzi diote; ez du izan arrakastarik hegazkin sinboliko, luxuzko eta ultraazkarrak. Baina Sevilla-Madril linea sonatuak ere ez du arrakastarik izan; korrika eta presaka eraiki zuten erakusketa unibertsalerako, eta ez du arrakastarik izan, soil-soilik tarte txiki batean ez duelako hartzen espero zuten abiadura, eta ez duelako lotzen gainerako penintsularekin: tarte bereizi bat izan da, errentagarritasun txikikoa, uharte bat, eta ez garraio sozial eta arrakastatsu bat. EB-IUk, Urnietako bozeramailearen bidez, nekatu gabe errepikatu behar du Euskadiko gizon-emakumeok ez dugula behar aberatsentzako tren bat, non sekulako dirutzak xahutuko diren, eta behartsuentzako tren bat, non hiltzen utziko

es lo que menos necesita Urnieta. Teniendo como tenemos un magnífico tendido, un acertado apeadero, no deja de ser un verdadero despropósito que en vez de solicitar una mejora sustancial del actual servicio para Urnieta, una serie de inversiones sobre la actual línea férrea que puede conectar a nuestros ciudadanos y ciudadanas con rapidez, seguridad y mayor frecuencia con Vitoria-Gasteiz y con Madrid o Valencia, esté usted, señora Mª Asuncion Guerra, con esta moción, planteando el despilfarrro, la hipóteca total para la colectividad de Urnieta y de cientos de pueblos como el nuestro y sobre todo plantea, como el PNV, el tren más antisocial y obsoleto que se ha proyectado nunca. Es aquí donde vuelven a unirse la derecha española y la vasca en toda su dimensión y acaban haciendo políticas de derechas, desarrollistas e insostenibles. Francia ha renunciado a la alta velocidad y lo ha hecho, entre otras cosas, porque la alta velocidad no soluciona el grave problema del transporte y porque en vez de unir, aisla. Francia fue el primer país que apostó por el TAV con la línea Paris-Lion, una línea que creó macrocefália, es decir, creció Paris y Lion decreció. No sirvió para unir dos ciudades sino para seguir colapsando una en detrimento de otra. La apuesta por la alta velocidad ha sido un fracaso también por aire: el famoso Concorde, también francés, ha dejado de fabricarse, no ha tenido éxito el simbólico, lujoso y ultraveloz avión. Pero tampoco ha tenido éxito la famosa línea Sevilla-Madrid, construida deprisa y corriendo para la exposición universal y no ha tenido éxito porque ni alcanza la velocidad esperada, nada mas que en un pequeño tramo, ni comunica con el resto de la península: ha sido un tramo aislado, poco rentable, una isla y no un transporte social y exitoso. EB-IU, a través de este portavoz en Urnieta, debe repetir incansablemente que los hombres y mujeres de Euskadi no necesitamos un tren para ricos donde gastar ingentes cantidades de dinero y un tren para pobres donde

diren gaur egungo ibilbideak. Ezker Batuak guztiontzako tren baten alde egiten du, egunero mugitzen diren milaka pertsonen beharrei erantzun eta lotuko dituen tren baten alde; tren bat, batez ere gaur egungo trenbidean oinarritua, baina hobetu egingo duena eta errepideetatik tonaka salgai aterako dituena eta trenbideko garraiora ekarriko dituena. U ibilbidearen proposamena egin dugu, eta Aralar mendikatea salbatzeko egin dugu, ingurumen inpaktuak gutxitzeko, proiektua nabarmen merkatzeko eta errepideetako garraioa trenbidera eramateko; trenbide moderno bat, guztientzako moduko bat izateko. Gaur denok dakigu Urnietako, Gipuzkoako eta Euskadiko jendeok tren garraioan inbertitu behar dugula, baina ez eragingabea, oso garestia eta antisoziala dela erakutsi duen garraio batean. Denok genekien, halaber, zaborren gaiari aurre egin beharko geniola, baina ez metodo garesti, eragingabe eta antisozialekin, nola den errauste planta. Ez egin berriz gauza bera, eta eman botoa Urnietan pentsatuz, eman botoa guztiengan pentsatuz, ez herritarren talde txiki eta pribilegiatu batengan, zeinentzat egin nahi baita AHT, eman botoa tren sozial, ekologiko eta elkarte guztien parte-hartzearekin diseinatutako tren baten alde. Eman ezezko botoa abiadura handiari, horrela bakarrik egingo baita Euskadiko herritar gehienen interesen alde".

se dejan morir los trazados actuales. Ezker Batua aboga por un tren para todos y todas, un tren que conecte y responda a las necesidades de las miles de personas que se mueven todos los días, un tren que, basado fundamentalmente en el actual trazado, lo mejore y saque millones de toneladas de mercancías de las carreteras y las traslade al transporte ferroviario. Hemos hecho la propuesta del trazado en U y lo hemos hecho para salvar la sierra de Aralar, para reducir los impactos ambientales, para abaratar el proyecto considerablemente y para volcar el transporte de carretera a la línea férrea, moderna y para todos y todas. Hoy todos sabemos que las gentes de Urnieta, Gipuzkoa y Euskadi necesitamos invertir en transporte por tren, pero no en un transporte que ha demostrado ser ineficaz, carísimo y antisocial. Todos sabíamos también que debíamos enfrentarnos al tema de las basuras, pero no con métodos carísimos, ineficaces y antisociales como está demostrando ser la incineradora. No vuelvan a hacer lo mismo y voten pensando en Urnieta, voten pensando en todos y todas, no en ese pequeño y privilegiado grupo de ciudadanos para los que se quiere hacer el TAV, voten por un tren social, ecológico y diseñado con la participación de todos los colectivos. Voten no a la alta velocidad, solo así se defienden los intereses de la mayoría de Euskadi".

Horren ostean, PSE-EEko zinegotzi Hermenegildo Gonzalez Moranek hartu du hitza, eta PPko zinegotziari galdetu dio mozioari eusten al dion, berak planteatzen duena dagoeneko ez baita hala; Eusko Jaurlaritzaren jarrera aldatu egin da; areagoa, akordio hau hartu du: "Gipuzkoako Batzar Orokorrek Sustapen Ministerioari eskatzen diote bultza dezatela AHTren proiektua Euskal Autonomia Erkidegoko ibilbidean, *Euskal Y*-a alegia, Eusko Jaurlaritzarekin eta gainerako administrazio publikoekin batera, eta manten dezala lehentasunezko sailkapena, ezarritako epeak

Después ha pedido la palabra el concejal del PSE-EE, Hermenegildo González Morán y se ha dirigido a la concejal del PP, para preguntarle si mantiene la moción, ya que lo que ella plantea ya no existe, la posición del Gobierno Vasco se ha modificado e incluso se ha adoptado un acuerdo en el que: "Las Juntas Generales de Gipuzkoa instan al Ministerio de Fomento a impulsar la ejecución del proyecto de trazado del TAV a su paso por el Pais Vasco, Y vasca, en coordinación con el Gobierno Vasco y el resto de las administraciones públicas involucradas, manteniendo la clasificación como prioritario del

## 2004KO UZTAILAREN 28KO UDALBATZARRARENAKTA
## ACTA DEL PLENO DEL 28 DE JULIO DE 2004.

betez eta beharrezko baliabideez hornituz".

mismo cumpliendo los plazos establecidos y dotándolo de los recursos necesarios".

PPko zinegotziak erantzun dio baietz, hala dela, eta horregatik esan duela irakurritakoa tokiz kanpo dagoela; egiten saiatu dena da modu sinbolikoan bere mozioa udalbatzarrera ekartzen, baina ken daiteke, ez baitauka zentzurik hori bozkatzeak; berak lekukotasun moduan islatu nahi izan du zein zen PPren kezka gai honi dagokionez.

Le responde la concejal del PP que efectívamente es así y que por eso ha dicho que lo que había leído quedaba fuera de lugar, lo que ha tratado de hacer de forma simbólica es que su moción llegue a Pleno, pero que se puede retirar, ya que no tiene sentido que se vote; lo que ella quería es reflejar de manera testimonial lo que en un momento era la inquietud del PP con este tema.

Azkenik, PNV-EAko bozeramaile Mª Isabel Vaquero Monterok eskatu du hitza, eta bere alderdiak gai honen inguruan duen iritzia azaldu du. Esan du mozio hori tokiz kanpo dagoela, ez bakarrik denboraz; baizik baita, PPk esan arren ahal duen guztia egin duela, PNVk justu kontrakoa uste duelako ere; gero, bere argudioak irakurri ditu:

"Inork benetan proiektuari tira egiten badio, Eusko Jaurlaritzak egiten dio tira, eta horren froga da hainbat pauso eman direla, aurreko PPren gobernua eraginkorra ez zela ikusita: Eusko Jaurlaritzak amaitu zituen eskumenez, 2001eko otsailaren 27ko burdinbideko PTSri buruzko akordioaren arabera, bere egitekoak ziren jardunak, eta hala definitu zen Burdinbideko Sare Berria (*Euskal Y*-a); Hiru urte pasatu ziren Gobernu zentralak, martxoko hauteskunde orokorrak baino hilabete lehenago, proiektuaren hiru zatiren lizitazioa atera zuen arte, lurralde historiko bakoitzeko zati banarena, hain zuzen; Gobernu zentrala gehiago berandutu ez zedin eta akuilu gisa eginez, Eusko Jaurlaritza Gipuzkoako lau zatiren eraikuntzari buruzko proiektuak idazten hasi zen, obrak garaiz hasteko eta 2010ean bukatu ahal izateko. Horrengatik guztiarengatik, haserretu egin zen Sustapen Ministerio hura; Eusko Jaurlaritzak behin eta berriz esan zuen hitzarmen bat sinatu behar zela Ministerioarekin, bi administrazioen (EAEkoa eta zentrala) arteko erantzukizunak definitu eta banatzeko, eta bateragarritasuna

Finalmente ha pedido la palabra la portavoz del PNV-EA, Mª Isabel Vaquero Montero para expresar la opinión de su partido sobre este tema. Ha dicho que esta moción está un poco fuera de lugar, no sólo por el tiempo, sino porque aunque el PP dice que ha hecho todo lo posible, el PNV opina justo lo contrario; a continuación ha leido su argumentación:

"Si realmente alguien tira del proyecto, ese es el Gobierno Vasco y prueba de ello es que ante la inoperancia del anterior Gobierno del PP se han dado los siguientes pasos: El Gobierno Vasco finalizó las actuaciones a las que estaba competencialmente obligado con la aprobación del PTS ferroviario el 27 de febrero de 2001, definiendo así la Nueva Red Ferroviaria ( Y Vasca); Transcurren tres años hasta que el Gobierno central, un mes antes de las elecciones generales de marzo, saca a licitación tres tramos del proyecto, uno en cada Territorio Histórico; Para que el Gobierno central no se demorara más y sirviendo de acicate, el Gobierno Vasco inició la redacción de proyectos constructivos en cuatro tramos de Gipuzkoa, con el ánimo de comenzar a tiempo estas obras y poder finalizarlas en el 2010. Todo esto produjo un gran enfado en aquel Ministerio de Fomento; El Gobierno Vasco insistió reiteradamente en firmar un convenio de colaboración con el Ministerio para definir y repartir responsabilidades entre ambas administraciones (la vasca y la central), buscando la complementariedad en los aspectos

bilatu behar zela bai finantza aldetik eta bai ingurumen eta epe aldetik. Hitzarmen hura ezin izan da gauzatu, PPren gobernuak uko egin diolako Eusko Jaurlaritzarekin harreman txikiena izateari ere; Legebitzarrean gai honen inguruan izan zen eztabaidan, gure taldeak lau auziren gaineko kezka azaldu zuen: PPk 800 milioi euro ordaintzeko konpromisoa hartu zuen, eta orain ez dakigu non dauden; obrak dagoeneko ezingo dira hasi 2004an; ez dakigu 2010erako bukatuko ote diren; alabaina, ministroak adierazi du Malagan 2006an izango dutela, Tarragonan 2007an, Bartzelonan 2008an, eta Kataluniako mugan 2009an; prentsa bidez jakin dugu ministroaren eta Lopez jaunaren adierazpenen berri, eta, adierazpen horien arabera, obrak urtea amaitu baino lehen lizitatuko dira, eta Gasteiz eta Bilbo lotzen dituen ibildearen lanak 2005ean hasiko dira".

tanto financieros como ambientales y de plazo. Este convenio nunca pudo materializarse por la negativa del Gobierno del PP a mantener ni la más mínima relación con el Gobierno Vasco; En el debate parlamentario sobre este mismo tema, nuestro grupo mostró su inquietud en torno a cuatro cuestiones: el PP había comprometido 800 millones de euros y ahora no sabemos donde están; las obras ya no podrán iniciarse el año 2004; no sabemos si se terminará para el año 2010, por el contrario, la ministra ha anunciado que a Málaga se llegará en el 2006, a Tarragona el 2007, a Barcelona el 2008 y a la frontera catalana el 2009; hemos conocido por la prensa las declaraciones de la sra. ministra y del sr. López, según estas declaraciones las obras se licitarán antes de fin de año y las obras del trazado que une Gasteiz con Bilbao comenzarán en 2005".

**10.- Galde-eskeak.**

Alkateak galdetu du inork ezer galdetzeko ba al duen. Maria Dolores Lasa urnietarrak eskatu du hitza esateko urtarrilean alkateak errauste planta ez jartzearen alde sinatu zuela udalbatzar batean eta gero Mankomunitatean-edo esan zuela errauste planta Urnietan jartzen bazen bera ados egongo zela; orduan, berak jakin nahi du zer pasatu den tarte horretan. Alkateak erantzun dio berak holako sinadurarik inon ez duela eman; berak bederatzi kokaguneetatik bat kentzeko sinatu zuen, eta irailaren 19an berak erabili duen botoa ez dela kontraesanean joan urtarrilaren 9an udal honek harturiko erabakiarekin. Gero, hitza eskatu du M. Isabel Vaquero Montero alkateordeak esateko aukeraketa prozedura honetan ez duela parte hartu ordezkari batek bakarrik, baizik eta hiru daudela, bat alkate bezala eta beste bi San Markoseko ordezkari bezala; horregatik, beti pertsona berari eraso egitea alderdikoi izatea dela iruditzen zaio. Bukatzeko esan du

**10.- Ruegos y preguntas.**

El alcalde ha preguntado si alguien tiene alguna pregunta que formular. Ha solicitado la palabra la urnietarra Maria Dolores Lasa para exponer que en enero el alcalde suscribió en un pleno a favor de la no implantación de la incineradora y que luego manifestó en la Mancomunidad que él estaría a favor de la incineradora en caso de que se implantara en Urnieta; por tanto, desea conocer qué es lo que ha pasado en ese periodo. El alcalde le ha respondido que él no ha firmado nada por el estilo en ningún sitio; lo que él firmó era para descartar una de las nueve ubicaciones, y el voto que él utilizó el día 19 de septiembre no fue contradictorio al acuerdo adoptado por este ayuntamiento el 9 de enero. Seguidamente, ha pedido la palabra la teniente-alcalde Mª Isabel Vaquero Montero para señalar que no ha participado un solo representante en el proceso de selección, sino que son tres los representantes, uno en calidad de alcalde, y otros dos en calidad

**2004KO UZTAILAREN 28KO UDALBATZARRAREN AKTA**
**ACTA DEL PLENO DEL 28 DE JULIO DE 2004.**

udalbatzarrean dauden ordezkariek errespetatu dutela udalbatzarrak agindutakoa, bai San Markosera joan diren biek, bai alkateak.

de representantes de San Marcos; por tanto, considera que atacar siempre a la misma persona es actuar de forma partidista. Para concluir, ha señalado que los representantes presentes en el pleno, tanto los dos representantes que han estado en San Marcos como el alcalde, han respetado el acuerdo plenario.

EBko zinegotziak eskatu du hitza, eta esan du 2004ko urtarrilaren 9an erabaki hau hartu zuela udalbatzarrak: "*Ez uztea errauste planta jartzen, behar beste lege neurriak hartuz, Urnieta ez dadin izan Gipuzkoako zabortegia*". Horrek esan nahi du Urnieta izendatua egon bada ere, uztailaren 19 arte ez dela inolako lege neurririk hartu. Alkateak galdetu du zein erabakiren aurka, eta EBko zinegotziak erantzun dio Urnietan jartzeko aukeraren aurka.

Pide la palabra el concejal de IU para decir que en el Pleno del día 9 de enero de 2004 el acuerdo que se tomó expresaba: "*No permitir la instalación de la incineradora, ejercitando cuantas acciones legales sean necesarias para evitar que Urnieta se convierta en el basurero de toda Gipuzkoa*"; lo que quiere decir que estando nominada Urnieta, hasta el día 19 de julio, no se han ejercitado ningún tipo de acciones legales. El alcalde le pregunta contra qué decisión y el concejal de IU le contesta que contra la posibilidad de la instalación en Urnieta.

Horren ostean, EBko zinegotziak galdetu du zergatik aspaldian ez den bildu Hirigintzako Informazio Batzordea. Alkateak erantzun dio Hirigintzako Batzordeak, besteek bezala, beharra dagoenean egiten dituela bilerak.

Después el concejal de IU pregunta por qué hace tiempo que la Comisión Informativa de Urbanismo no se reúne. El alcalde le contesta que la Comisión de Urbanismo, como las otras, se reúnen cuando hay necesidad.

Eta besterik gabe, bilera bukatutzat eman da arratsaldeko seiak hogeitabost gutxiagotan eta nik, Urnietako bitarteko idazkariak, alkatearen oniritziaz, hala ziurtatu dut, Urnietan 2004ko abuztuaren 25ean.

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las seis menos veinticinco se levanta la sesión, de la que yo, la secretaria interina de Urnieta, certifico con la aprobación del alcalde, en Urnieta a 25 de agosto de 2004.

Stua.: Beatriz Garate Cortabarria
Bitarteko idazkaria,

Stua.: Florentino Ugalde Atxaga
Alkate-lehendakaria,